



kultura eta tradizioa

SINBOLISMOA

Garai askotan, hagina zuhaitz sakratutzat jo izan da, baina seinale onen erakusle ere baziren, edo batzuetan ez hain seinale onenak (pozoitsua delako). Adibidez, kantabriar, astur eta baskoien enfrentamenduetan erromatarren aurka: “baskoiek, dena galdua ikusten zutelarik, gurutziltzatuak izan baino lehen, narkotiko kantitate handiak hartzen zituzten, minik gabe hiltzeko, beldurrez eta harriturik ikuskizuna ikusten zuten etsaien aurkako kantu eta irainen artean” (Lopez de Guereñu, 1984).



1.



2.



3.

1. Bierzoko etxe bateko atean ekaitzak eta augurio txarrak uxatzeko jarritako sortaren xehetasuna.

2. Hagin sorta hilerri bateko gurutzean. Xehetasun txiki honek antzinako hileta tradizio sustraitua erakusten du, landa inguruneetan oraindik ere zenbait biztanlek mantentzen dutena.

3. Azterketaren esparruan oso ohikoa da eliza eta hilerrietan duela mende batzuk landatutako haginak ikustea, bizitza luzearen sinboloa direlako, are betiere-kotasunaren sinbolo. Herriko plazetan eta kontzejuak biltzeko tokietan ere landatzen ziren. Zuhaitz sakratutzat jotzen zenez, juramentuak bermatzeko testigu

Kantauriar mendilerroan oso sustraituta dagoen beste ohitura bat da etxe sarreran hagina landatzea, babes sinboloa zelako, eta delako oraindik ere (tximistak eta ekaitzak uxatzen ditu, espiritu txarrak ere, etab.).

ERABILERA. TRESNAK

Haginaren zura oso gogorra da, trinkoa, erresistentea eta ez da usteltzen. Historiaurrean jada egiten zituzten arkuak eta beste tresna batzuk hagin egurrez. Esaterako, Otxiko gizona, zeinak material horrekin egindako aizkora eta arku bat zeraman hil zenean, orain dela 5.000 urte. Hain preziatua zen, Erdi Aroan zenbait lurraldetako kontzejuek baleztak egiteko gordetzen zituzten haginak.

Artzainek hagin zurez egiten zituzten makilak eta ardientzako lepokoak, arranak eta zintzarriak. Erlijioko tailak ere egiten ziren, baita koilarak, sardexkak, platerak eta antzeko tresnak ere.

Oso ohikoa zen erabiltzea itxituretako hesolak egiteko, eta errotako ardatzak, gurdietako piezak, laborantzako lanabesak, musika tresnak eta abar egiteko.



Hagin zurezko platera, gurina egiteko, “plato macho” esaten zaiona.

KONTSERBAZIOA. ESPEZIEAREN ZABALKUNDEA ETA HABITATA AZTERKETAREN ESPARRUAN

Azken hamarkadetan, talde kontserbazionistek hainbat ekimen garatu dituzte hagina kontserbatzeko, horien artean egonik “A Morteira” Bierzo, Laciana eta Cabreran, “Asociación de Amigos del Tejo y las Tejedoras”, “Grupo para el Estudio y Defensa de la Montaña Central Leonesa”, “El Encubiello” elkarteak, Las Salas (Leon), Salvagorok elkarteak (Araba), etab.

